



Oldarraldiaren aurrean
hizkuntza-eskubideak babesteko

PROTOKOLOA



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

«Gizaki orori dagozkio, Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasun berdinak; ez da inor diskriminatuko arraza, larru-kolorea, sexua, **hizkuntza**, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.»

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

2. ARTIKULUA

1. SARRERA

Euskara hizkuntza gutxitua da bere herrian, hizkuntza hegemonikoez inguratuta –gaztelera eta frantsesa– eta egoera zaurgarrian dagoena. Horregatik, hizkuntza aniztasuna eta berdintasuna babesteko ezinbestekoak dira botere publikoek eskaini ditzaketen araudi eta neurri positibo guztiak. Horretarako, euskararen normalizazio prozesuak ezinbesteko du gizarteko esparru guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuak izatea.

Tamalez, badira euskararen sustapenerako ekintza positibo horiek begi onez ikusten ez dituzten sektoreak, eta euskararen biziberritzea oztopatzea xede dutenak. Azkenaldian, areagotzen joan dira auzitegietatik euskararen normalizazioaren aurka ateratako sententziak, herritarren hizkuntza-eskubideak murriztea eragiten ari direnak. Atzera egitera behartu nahi gaituen oldarraldi judizial honi erantzun irmoa emateko asmoz, Kontseiluak ondorengo tresna garatu du.

Protokoloaren helburua hizkuntza-eskubideen aurkako erasoan aurrean antolatu eta saretzeko tresna bat eskaintzea da, euskalgintzaren eta hizkuntza-eskubideen defentsan sinesten duten eragileen arteko harremana eta elkarlana hauspotuz. Hau da, tokian toki eta batasunetik erantzuteko tresna edonorren eskura jartzea.

Era berean, oldarraldiaren kasuistiken aniztasunaz jakitun, izaera irekia eman nahi izan zaio protokolo honi. Sutan jartzean probatzen da eltzea eta, hain zuzen, erantzun eta esperientziak metatu ahala, eragileen ekarpenak jasoz, indargune eta ahulguneak identifikatuz, protokoloa aberasten eta egokitzen joatea du xede.

2. JARRAIBIDEAK

PROTOKOLOA noiz aktibatzen da:

Protokolo hau hizkuntza-eskubideen aurkako erasoak ematen diren hainbat momentutan aktibatu daiteke:

- 1) Arau, kontratazio publiko edo lan-deialdi bati hizkuntza-eskubideei lotutako helegitea jarri zaiola jakindakoan, kasuan kasu jarraipena egiteko.
- 2) Hizkuntza-eskubideen edo euskararen normalizazioaren-aurkako epai baten berri jasotakoan, erantzuna prestatzeko.

PROTOKOLOA nork aktibatzen du:

Protokoloa, aurrez aipatutako bi kasuetako baten berri duenak aktibatuko du. Beraz, informazio hori lehen eskutik eta eskuratzen lehenengoak izan daitezkeenez, normalean, ordezkari publikoen edo sindikatuen esku egongo da protokoloa aktibatzea. Halere, protokoloan parte hartzen duen edonork aktibatu ahal izango du.

PROTOKOLOA nola aktibatzen da:

Helegitearen edo epaiaren inguruko informazioa Kontseilura bideratuz aktibatuko da protokoloa. Horrela, informazioa aztertu ondoren, Kontseiluarekin batera ebaluatuko dira zeintzuk diren egin beharreko hurrengo urratsak.

PROTOKOLOA aktibatu ondorengo urratsak:

Kontseiluaren aldetik, jasotako informazioa aztertu ondotik, ekinbide desberdinak garatzea proposatuko die eragileei. Jarraian, ekinbide horiek zeintzuk izan daitezkeen aztertuko da eragileekin, eragin eremuaren arabera.

1. Udal edo tokiko kasuak

Orain arteko sententzien harira emandako erantzunetan oinarrituko da prozedura: lehenetsuna tokiko eragileek izango dute: euskara elkarteak, eragile euskaltzaleak, langileak, bereziki kalteturiko kolektiboak.... Azken hauen eta Kontseiluaren arteko informazio trukaketa egin ondotik, arduren banaketa zehaztuko da:

Kontseilua:

- Eragileei jakinaraziko die protokoloa martxan jarri dela, beharrezko informazioa helarazteaz arduratuko da eta, bakoitzak bere alorretik, ahal duen neurrian eragiteko eskaria luzatuko die.
- Alderdi eta sindikatuen arduradunekin jarriko da harremanetan jazotakoaren

berri emateko eta, ahal duten neurrian, salaketan parte hartzera gonbidatuko ditu.

Tokiko euskalgintza:

- Udal mailako ordezkari sindikalekin harremanetan jarriko da, salaketa bateratu baterako oinarriak baden ikusteko. Lehenetsunak da epaia ematen den eremuko langileen atxikimendua lortzea, lan-eskubideak vs. hizkuntza-eskubideak dikotomia faltsuaren argudioa baliogabetzeko.
- Udal mailako alderdi desberdinekin harremanetan jarriko da, salaketa bateratu baterako oinarriak baden ikusteko. Epaien kasuan, errekurtsioa jartzeko aukera proposatuko zaio udal-gobernari. Tokiko euskalgintzak egokiago baderitzo, kasuan kasu, Kontseiluak har ditzake ardura hauek.
- Bilera irekiak deitzeko aukerarik dagoen aztertuko du, gainontzeko eragile sozial eta norbanakoen inplikazioa bilatu eta herritarrak informatzeko.

Erasoa salatzen prest dauden eragile sozial eta politikoen artean, eman beharreko erantzuna adostuko da: adierazpena (bateratua nahiz bakoitzak berea), prentsaurrekoa, elkarretaratzea, manifestazioa, ekintza irudimentsua... Hala ere, baliteke eragile desberdinek konpromiso maila desberdina adieraztea (adibidez: udalak adierazpena sinatu eta errekurtsioa jarri, baina elkarretaratzea euskalgintzak eta sindikatuek). Kasu horietan, ez da inor behartuko prest dagoena baino urrunago joatera.

Behin erantzun mota zehaztuta:

- Deialdirako aukera desberdinak badaude ere, tokiko euskara elkarteak eta bertako eragile euskaltzaleek egitea lehenetsiko da, Kontseiluarekin batera zein ez.
- Kontseiluak euskarri eta baliabide desberdinak eskainiko dizkio tokiko euskalgintzari: kartel mutua, pankarta, argumentarioa...
- Hedabideekin egin beharreko lanketa komunikatiboaren arduren banaketa egingo da: Kontseiluak Euskal Herri eta herrialde mailako hedabideak; tokiko euskalgintzak herrikoak eta bailara/eskualdekoak.
- Udalak errekurtsioa jartzea erabakiko balu, Kontseiluak bere babesa adieraziko lioke.

2. Foru erakunde edo administrazio orokorragoetako erasoak

Prozedurak bi helburu nagusi izango ditu: batetik, langileen eta sindikatuen erantzun bateratua; eta bestetik, alderdi eta instituzioen salaketa adierazpena eta, egingarri den kasuan, errekurtsioa jartzea.

Kontseilua:

- Eragileei jakinaraziko die protokoloa martxan jarri dela, beharrezko informazioa helarazteaz arduratuko da eta, bakoitzak bere alorretik, ahal duen neurrian eragiteko eskaria luzatuko die.
- Alderdi eta sindikatuen arduradunekin jarriko da harremanetan jazotakoaren berri emateko eta, ahal duten neurrian, salaketan parte hartzera gonbidatuko ditu.
- Epaiaren eragin-eremuko alderdi eta gobernu ordezkariekin jarriko da harremanetan, informazioa trukatu, elkartasuna adierazi, salatzeko adierazpen baten beharra nabarmendu eta, egingarri den kasuan, errekurtsoa jar dezaten gonbitea luzatzeko.
- Sindikatuetako arduradunekin jarriko da harremanetan.
- Euskalgintzako eragileei mobilizazio deialdirako gonbitea luzatuko die.

Eragileak:

- Sindikatuek salaketarako konpromiso bateratua adieraziko balute, bakoitzaren ordezkari eta kidegoarekin erantzun bat adostuko dute (salaketa adierazpena, prentsaurrekoa, elkarretaratzea, mobilizazioa...).
- Sindikatuen ardura izango da epaiak bereziki kaltetutako kolektiborik balego, hauen atxikimendua eta parte hartzea bideratzea.
- Eragile bakoitzak bere lanketa komunikatibo propioa egingo du, Kontseiluak barne.

3. PROTOKOLOAREN EGUNERATZEA

Hasieran esan bezala, protokolo hau ekarpenei irekia izango da, kasuistikaren eta eskarmentuaren araberako hobekuntza eta eguneratze prozesuan.

Protokoloaren azken bertsioa Kontseiluaren webgunean eskuragarri egongo da:

www.kontseilua.eus/protokoloa